

Prestatu da foru agindu baten proiektua, Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde eremuan kokatutako ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzen dituen. Hartara, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuak honako hau ADIERAZTEN du:

2020ko abenduaren 30ean, EAOn argitaratu zen 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. Besteak beste, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira hezkuntzako etapetako curriculum egituretan, hain zuzen etapa hauetan: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

Gobernuak, kasuan kasuko errege dekretuen bidez (gaur egun tramitatzen ari dira), antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezarriko ditu, lehen aipatutako etapa bakoitzerako.

Aldi berean, Hezkuntza Departamentua foru dekretu baten proiektua prestatzen ari da, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen curriculum ezartzeko.

Era berean, Hezkuntza Departamentuaren eskumena da Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzea.

Horregatik guztiagatik, eta abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoan agindutakoa ezartzeko egutegia bete ahal izateko, Hezkuntza Departamentuak hasiera eman behar dio Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako irakaskuntzen ezarpenaren eta ordutegiaren proiektua egiteko prozedurari. Hori dela eta, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuak proposatzen du Nafarroako Foru Komunitatean etapa horri dagozkion irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia arautzeko foru-agindua egiten hastea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 28an. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuko zuzendaria, Pablo Arriazu Amat eta Ikasketak Antolatzeko Ataleko burua, Fernando Gorostizu López.

(Sinadura jatorrizkoan dago)